




Amerikanuak

Euskaldunak Mundu Berrian

William A. Douglass & Jon Bilbao

Itzulpena: Asun Garikano

Saio eta Testigantza, 283

978-84-9172-453-7

2025 - 528 or. - 17 x 24 cm

29,50 €

Ez da harritzekoa euskaldunek Mundu Berrian izandako bost mendeko parte-hartzea hain isilean pasatu izana historia-liburuetan. Erreserba euskal nortasunaren markarik sakonena izan da beti.

Eta hala ere, harritzeko modukoa izan da parte-hartze hori. Euskal marinela aitazindari izan ziren ozeano ezezagunak zeharkatzen baleen atzetik, eta ziurrenik ezarria zuten begia Ternuan eta Kanadan 1500eko hamarkadaren hasierarako, edo agian lehenago. Euskal ontzi eta marinelei esker egin zen Kristobal Kolonen lehen espedizioa. Ordutik aurrera, euskaldunak presente egon ziren Hego Amerikaren, Mexikoren, Kalifornia espainiarraren eta Mendebalde Urrunaren konkistan eta kolonizazioan.

Euskaldunek Mundu Berrian egindako lanen aztarna sarritan lauso horiei jarraitzeko ardura hartu dute beren gain William Douglass antropologoak eta Jon Bilbao historialariak. [...]

Ondo samar informatutako legoa eta guraso euskaldunak dituen amerikarra naizen aldetik, esan beharrean nago liburu hau *–Amerikanuak: Euskaldunak Mundu Berrian–* garrantzi handiko mugarrria dela. Bere edukia aurrerapauso handi bat da, horretan nago, Mundu Zaharrak Ipar Atlantikoan, Latinoamerikan eta Mendebalde Urrunean izandako parte-hartzearen historia ezagutzeko bidean. *Robert Laxalt*



William A. Douglass (Reno, 1939). Gaztetan Nevadako desertuan tranperoa izandakoa. 1967an Gizarte Antropologian doktoratu zen Chicagoko Unibertsitatean. Urte berean, Jon Bilbaorekin eta Robert Laxaltek batera, Nevadako Unibertsitate Sistemako Euskal Ikasketen Zentroa sortu zuen, eta erakundearen buru izan zen 2000. urtera arte. Antropologo gisa, Etxalarren eta Aulestin egin zituen lehenengo landa-lanak. Sakon ikertu du euskaldunek AEBko mendebaldean, Latinoamerikan eta Australian edo Filipinetan izandako presentzia, baina beste gai batzuei buruz ere idatzi du. Bere obra batzuk: *Death in Murelaga* (1969), *Beltran: Basque sheepman of the American West* (1979), *Terror and Taboo: the Follies, Fables and Faces of Terrorism* (Joseba Zulaikarekin, 1996), *La Vasconia global* (2004)... Euskaraz: *Terrorista nire baitan* (2011), *Bizi ondorengo heriotza* (2015). Miel A. Elustondok idatzitako biografia bat ere bada: *William A. Douglass, Mr. Basque* (2011). Sari eta omenaldi asko jaso ditu. 2012. urteaz gero, Nevada Writers Hall of Fame-ko kide da.

Jon Bilbao Azkarreta (Cayey, Puerto Rico, 1914 - Gorkiz, Bizkaia, 1994). Gaztetan dantzaria eta gitarrista, gero historialaria, irakaslea, ikertzailea eta bibliografoa. 36ko Gerran, Eusko Gudarostean izena eman eta boluntario joan zen frontera. Gerra ostean, erbesteratuta, Columbiako Unibertsitatean (New York) amaitu zituen Madrilén hasitako Historia ikasketak. New Yorken bertan, *La revista belga*, *Ambos Mundos* eta *Basques* aldizkarietan jardun zuen, Agirre lehendakariak eskatuta. Irakasle ere aritu zen Estatu Batuetako hainbat unibertsitatetan. 1967an, Nevadako Unibertsitate Sistemako Euskal Ikasketen Zentroaren sortzaileetako bat izan zen William A. Douglass eta Robert Laxaltek batera. Euskal Herrian bizi izan zen aldietan, Jose Migel Barandiaranekin kolaboratu zuen *Eusko-Jakintza*, *RIEV* eta *Ikuska* aldizkarietan. Abertzale kosmopolita, Kuban ere bizi izan zen, eta ordukoa da *Vascos en Cuba: 1492-1511* (1958). Bere lan nagusia, hala ere, gazte garaian hasi eta inoiz utzi ez zuena, *Eusko Bibliographia* izan zen: euskal gaiari buruz argitaratutako liburu, liburuxka, artikulu eta abar jasotzen dituen obra monumentalak.